

The background of the cover is a photograph of a woman with long dark hair, wearing a pink textured sweater, leaning against a rough stone wall. She is looking towards the camera with a serious expression. The background shows a blurred street scene.

hiruka

184. zenbakia
2022ko ekaina

AMELIA TIGANUS Prostituziotik aktibismora

«Sexu-eredu etikoak behar ditugu»

EKAINA

ANTZERKIA



LUBAKI LAINOTSUA ATX TEATROA

EKAINAK 10 OSTIRALA 19:30 / 10€

MUSIKA



GARI & MALDANBERA

EKAINAK 10 OSTIRALA 21:00 / 8€

MUSIKA



ZETAK

EKAINAK 11 LARUNBATA 21:00 / 18€

MUSIKA



45. NAZIOARTEKO JAZZALDIA

EKAINAK 29 - UZTAILAK 03 21:00 / BONUA 65€

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Alconza lantegiko beharginak, greba mugagabea
- 16 Euskarari, atara kontuk!
- 17 Naturaren behatokitik
- 18 Hirudika: Leioako Umore Azoka
- 24 Amelia Tiganus ekintzaile eta hezitzaileagaz berbetan
- 28 Uribe Kostako kultur agenda
- 30 Lehen/orain eta Uribitakora
- 31 Musikhariak: Nazka
- 32 «Gu ere bagara», LGTBI+ kolektiboko nagusien istorioak biltzeko egitasmoa
- 33 Jon Uriarte, Getxophotoko komisarioa
- 34 XVIII. «Sanikoko» Pala Txapelketa
- 35 Arkote Arraun Taldearen harrobia
- 36 Iritziak eta horoskopoa
- 38 Argazkilariaren txokoa: lehiaketa!
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Mundukatuak: Eslovakia
- 43 Udako zozketa bereziak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Julen Nafarrate, Irati Diaz, Iraide Juaristi, Joanes Atxa, Xabier Buenetxea, Asier Barruetañeña, Ekaitz Herrero eta Joxe Belmonte
Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Ehun irakaspen

IRAIDE JUARISTI AGIRRE LAB eskumaldea



Hitz hauek idazten ditudan bitartean, Alconzako langileek 100 egun daramatzate greban.

Demagun otsailaren 11n zure enpresak lankideen heren bat kaleratuko duela iragarri dizula; langile asanblada amaigabeen ostean, otsailaren 28an, plantillakoak greba mugagabeen jarri zaretela eta, apirilaren 4an, 25 lankide kaleratu dituztela. Imajinatu denbora horretan ez zarela gelditu: piketeetan egon zara, lankide batzuk *eskirol* bihurtu dira, herrikideen berotasuna jaso duzu, mobilizatu zara, urteetako lankideak ezagutu dituzu, poliziak jo zaitu, haserretu zara eta amorruez egin duzu negar. Zure aldarria lau haizetara zabaltu duzu: enpleguaren defentsan eta etorkizunaren alde, Alconzan ez dago inor soberan.

Alconzaren jabe den Irizar zurekin hitz egitera eseriko zela espero zenuen; kaleratzeen erabakia birpentsatu eta Alconzaren industria-plana eztabaidatuko zenutela. Desindustrializazioaren eta enplegu suntsiketaren aurrean Eusko Jaurlaritzak zerbait egingo zuelakoan zeunden, baina beste alde batera begiratu dute. Jada, badakizu inork ez digula ezer oparituko; etorkizun duina borroka irabaziko dugula. Hori da eskualde honetako zahar zein gazteok borroka honetatik ikasten ari garena. Bizitza duinaren aldeko borroka beti merezi duelako.

Alconzako 25 kaleratuak

IRATI DIAZ UGARTE ELA eskumaldea



Berangon dagoen enpresa honek, apirilean Enplegu-erregulazioko espedientea izapidetu zuen 25 langile kaleratzeko.

Alconzako zuzendaritzak azaldutako arrazoiek ez dute inolaz ere justifikatzen hartutako neurria. Horrez gain, argi ikusi da zein den beraiek duten arazoa, nahikoa baita ikuskaritzak egindako txostena irakurtzearekin. Bertan esaten da kaleratuak izan diren langileen aukeraketa egiteko orduan ez dutela legea bete, behin betiko zerrendan greban dauden langileak bakarrik agertzen baitira. Arrazoi horiek medio, ELAk demanda bat aurkeztu du epaitegian, EEEa baliogabetzeko eskatzeko.

Baina, zer dago enpresa horren atzean? Norena da erantzukizuna? Irizar Taldeko enpresak izugarrizko babesgabetasun-egoeran utzi ditu langileak, Alconzaren jarraipena arrisku larrian egon arren. Ez du parte hartu Alconzako arazo koiunturalei heldu eta etorkizuna bermatuko duen industria-planaren proposamenean, nahiz eta Alconzaren kutxatik Irizarrek 10 milioi euro banatu dituen dibidenduetan.

Gainera, Eusko Jaurlaritza lanpostuak defendatu beharrean, greban dauden langileak erreprimitu eta kriminalizatzen ari da, beste behin.

Puntua eta kontrapuntua **Alconza Irizar Group-eko lan-gatazka**

Betiko borroka



*Irizar irri berriz
dagigun garaitu,
Alconza defendatzen
behar da jarraitu.
Greba mugagabeak
edonor gogaitu
dezakeen arren noizbait
salbatuko gaitu;
gau beltzak biharamun
argitsua baitu!*

**PERU
IRASTORZA
SANTXO**
Algorta



**Algortako
Bertsolari
Eskola**

*Gurean beti izan da
ohikoa protesta:
pilota partida bat,
manifa zein festa.
Batzuek boterea
(e)ta besteek kezka.
Segi beharko dugu
borrokatzen, ezta?
Saiakerarik bako
garaipenik ez da.*

**ITXASO
PAYA
RUIZ**
Algorta



Naiara Goiriena Zilloniz Leioako akelarreko kidea

«Herria batzeko momentua da»

Ekainaren 23an galtzagorriak, sorginak eta lamiak batuko dira berriro ere Leioako suaren inguruan dantzaz. Naiara Goiriena da antolatzaileetako bat.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Akelarretan elkartuko gara, galdutako denboraren seme-alabak, tentaldirik luzeena piztuko da azkenean...». Hala dio Zetak musika-taldeak orain dela urte bi, itxialdi garaian, sortu zuen abestiak. Bada, heldu da akelarrean batzeko momentua berriro ere, urte biko etenaldiaren ostean! Leioan dugu ezinbesteko hitzordua, ekainaren 23an. «Dantza, poza eta algara batuko ditugu suaren bueltan, urtero bezala. Herria batzeko momentua da, elkartu, maitatu, laztandu... Jai egitekoa!». Berbak Naiara Goiriena leioztarrarenak dira. 20 urte baino gehiago daramatza ekimen herrikoi hau antolatzen, Mari-txu Teilagorri Txosna Batzordearen baitan. Akelarrearen izaera parte-hartzailea nabarmendu gura du Goirienak:

«Auzokide askoren inplikazioari esker mantendu da, eskerak oso burugogorrak garen. Antolatze-lanetan 30 lagun ibiliko gara, baina gero hamaika lagun batzen da dantzara. Oso hunkigarria da».

1998an sortu zen akelarrea, orduko Mendibile gazte-txean: «AEK-ko ikasle talde bat elkartu zen gazte asanbladagaz eta herri-mugimenduko beste eragile batzuek batera, aratusteetan akelarre moduko bat antolatzeko». Eta lehenengo txinparta hori su handi bat bihurtu da gaur egun, eredugarri beste hainbat herrirentzat: «Ohore handia da guretzat. Gidoia beste hainbat herritatik eskatu digute». Akelarrea bera asko aldatu da azken hamarkada bietan: errituak, inkeisizioaren antzezpena, erromeria taldeak, Gure Ohiturak taldeko txistulariak... Eta, noski, euskal mitologiako pertsonaiak! «Hainbat agertzen dira: galtzagorriak, lamiak, sorgin nagusia, akerra, aztia...». Goirienak ere Mariren pertsonaia gorpuztu du azken 15 urteetan: «Mitologiagaz lotura handia sentitzen dut. Benetan, gau magikoa da, jendearen emozioa, gure artean sortzen den maitasuna...». ◀

Alconza lantegiaren

ALCONZA
BERANGO-VIZGAYA

1961

Alconza lantegia sortu zuten, Berangon. Hurrengo hamarkadetan, aitzindariak izango ziren eskuilarik gabeko alternadoreak sartzen.

ALCONZA AA
BERANGO-SPAIN

2000

Itsas offshore aplikazioetarako motorrak eta sorgailuak sortzen hasi ziren. Gainera, makinaria elektrikoetarako teknologia propioa garatu zuten.



2013

Irizar Taldeak enpresa erosi zuen, elektromugikortasuneko soluzioetarako motorrak sortzeko asmoz. Bitartean ere, orain arteko lana egiten jarraitu du enpresak, baina lan egiteko modu berrian.



2019-2020

2019an, langileek bost eguneko greba egin zuten lan-hitzarmena hobetzeko asmoz. Hurrengo urtean ere hainbat lanuzte egin zituzten soldata-murrizketaren kontra.



PNV SUBVENCIONA A IRIZAR
IRIZAR DESPIDE 38 TRABAJADORES
EN ALCONZA BERANGO
Irizar ¿ES VUESTRO MODELO DE EM

NO SOBRA

EN ALCONZA NO

etorkizuna, borrokan



2022ko otsailak 28

Enpresak 38 behargin kaleratzeko EEE bat proposatu eta greba mugagabeari ekin zioten langileek. Azkenean, 25 pertsona kaleratu ditu enpresak.



2022ko apirilak 23

Protesta hasi zenetik, greban ez zeudenak telelanean ari ziren egun honetara arte. Ordutik, lanera joaten dira astelehenetik eguenera, eta tentsio-uneak bizi izan dira alde bien artean; Ertzaintza-zaren jarrera ere salatu dute.



2022ko maiatzak 24

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek salaketak jarri zituzten, kaleratzeak legez kanpokoak izan direlakoan. Epaiketa maiatzaren 24an izan behar zuen, baina epaileak hori atzeratzea erabaki du.



2022ko ekainak 28

Dokumentazio eta froga guztiak eduki arte atzeratu da epaiketa, eta ekainaren 28an ekingo diote auziari.

Ekainaren 7an 100 egun bete zituzten greban Alconzako grebalariek. Berangoko lantegiko egoera ekonomikoa hobetu guran, Irizar Taldeko zuzendaritzak 25 pertsona kaleratu ditu, eta horiek baliogabetzeko salaketak jarri dituzte sindikatuek. Epaiketa ekainaren 28an izango da, eta ordura arte, gutxienez, grebak jarraituko du.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO

ARGAZKIAK: HODEI TORRES · IKER RINCON MORENO · ANDER ZARRAGA · ALCONZA ▶

IRIZAR
RES
GO
PRESA?

SOBRA NADIE

Alconzan ez dago inor soberan!». Aldarrikapen horregaz ekin zioten orain dela 100 egun baino gehiago Berangoko lantegi horretako grebalariek protestaldiari. Izan ere, Alconza Irizar Group-eko zuzendaritzak 38 langile kalera-
tzeko enplegu-erregulazioko espediente (EEE) bat iragarri zuen urtearen hasieran, fabrikako egoera ekonomiko latzari irtenbidea emateko asmoz. Langileek, euren aldetik, uste dute enpresak bizi duen egoera koiunturala dela; hori dela eta, kaleratzeak beharrezkoak ez direla eta industria-plan berria beharrezkoa dela azpimarratu dute behin baino gehiagotan, eta, hori aldarrikatzeko, otsailaren 28an ekin zioten greba mugagabeari. Kaleratze horien orde-
dez, besteak beste, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat proposatu zioten zuzendaritzari, lantegiaren etorkizuna bermatzeko, lanpostuei eusteko eta langileak aurrez erretiratzeko bermeagaz. Hala ere, Irizar Taldea jabe duen enpresak baztertu zituen aukera horiek; are, beharginek salatu dute zuzendaritzak ez duela «inoiz» negoziatzeko borondaterik agertu. Horren aurrean, bide bakarra borrokatzea zela ondorioztatu zuten grebalariek, eta horretan dihardute lerrook idazteko orduan ere.

Apirilaren 4rako, aurreikusitako kalera-
tzeak gauzatu zituen Alconza kudeatzeko Norgestion enpresak: azkenean, 25 langile despeditu dituzte, aurreikusitakoa baino 13 gutxiago; tailerreko 21 behargin, eta bulegoko beste lau, grebalariek zehaztu dutenez. Hala ere, horiek guztiak laneratu arte makinak geldirik mantendu eta kalean protestan jarraituko dutela iragarri dute. Era berean, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek kaleratze horiek salatu eta EAEko Auzitegi Nagusira eraman zuten gaia, despidoak «legez kanpokoak direlakoan». Izan ere, horren harira, ELA sindikatuak azaldu duenez, Alconzak ez ditu Langileen Estatutuan eta 1483/2012 Errege Dekretuan ezarritako legezko baldintzak bete kaleratzeak gauzatzerakoan: «Enpresak ez ditu langileei eragiten dizkieten izapideak adierazi, eta, horren eraginez, greban ari diren langileak bakarrik kaleratu dituzte». Ildo horretan, sindikatuak ziurtatu du Lan Agintaritzak bereziki nabarmendu duela puntu hori enplegu-erregulazioko espedientea izapidetzean egindako nahitazeko txostenean.

Maiatzaren 24an jarri zuten data epaiketa-
rako, baina epaileak, azkenean, hiru salake-
tak batu, dokumentazio guztia bildu eta hila-

25

langile kaleratu ditu Alconza Irizar Grop enpresak. Hasiera batean, baina, 38 izango zirela iragarri zuten, hau da, langile-taldearen % 40a.

100

egun bete zituzten greban joan den ekainaren 7an. Kaleratutakoak laneratzea eta industria-plan berria eskatzen dute grebalariek.

2013

urtean erosi zuen Irizar Taldeak Alconza lantegia. Orduan, 10 milioi euroko mozkinak banatu zituen Gipuzkoako kooperatibak.

5

milioi euroko galerak izan ditu urtez urte Alconza Irizar Group enpresak 2017tik gaur egunera arte. Lanez gainezka egon arren, galera horiek kudeaketa «negargarriaren isla» izan dela deitoratu dute grebalariek.

betez auzia atzeratzea erabaki du, ekainaren 28ra arte, hain zuten ere.

SEKTOREAN ERREFERENTE. Berangoko Alconza lantegiak itsas sektorerako sorgailuak eta motorrak diseinatu eta egiten ditu, baita alor hidroelektrikorako eta industrialerako ere. 1961ean ekin zion bideari, motor txikiak egiten; urtez urte, enpresa handitzen joan da, eta 2000ko hamarkadarako, itsasoko motor eta sorgailuetan erreferente izatea lortu zuen. Eskualdean, Uribe Kostan, hamaika izan dira bertan lan egin izan dutenak, «garrantzi handiko enpresa izan da Alconza inguruotan, jende askok lan egin duelako bertan», dio Jon Perez Arrik, Alconzan 14 urtez lan egin duen grebalarietako batek. Gogoratzen duenez, hasieran, 400-600 behargin inguruk lan egiten zuten fabrikari; bera sartu zenean, aldiz, 255 pertsona aritzen ziren bertan. Orain, kaleratzeak gauzatuta, 70 inguru egongo direla deitoratu eta zalantzan jarri du enpresak bere zereginakaz aurrera egiteko gai izango den lan-talde «txiki» horregaz.

Kooperatibismoan erreferente den Irizar Taldeak 2013an erosi zuen Alconza, Berangoko lantegia hauspotu guran. Ordura arte, berangoztarrek lan handia egin izan dute, eta izugarrizko etekinakaz hasi zuten 2010ko hamarkada. «Alconza momenturik onenean zegoenean erosi zuten», gogoratu du Perez Arrik. Garai haietan, den-dena egiten zuten Berangon, torlojuak izan ezik: «Karkasak, mekanizazioa... Guztia egiten genuen hemen. Horrela, arazoren bat izaten genuenean, ardua hori zuen sekziara joan eta atoan konpontzen genuen». Irizarrek enpresa erosi zuenean, aldiz, kudeatzaile berriek plan berria aurkeztu eta martxan jarri zuten bertan. «Ideia zen pieza guztiak eginda erostea, eta guk berton muntaia bakarrik egitea». Hala ere, beharginek deitoratu dutenez, lan egiteko modu horrek ez du funtzionatu, «ez gare-lako lehen bezain arinak; arazoren bat izanez gero, pieza bueltatu behar izaten dugu eta, ondorioz, proiektua gelditu hori bueltan izan arte. Ez da batere errentagarria, eta galerak nabariak izan dira. Gainera, urtez urte lortu-tako izen ona zikindu egin da merkatuan».

OPAROALDITIK, GAINBEHERARA. Irizarrek Alconza erosi zuenean, ustea zen Gipuzkoako kooperatiba horren autobusen motorrak egiteko izango zela, baina, azkenean, ez da guztiz horrela izan. Perez Arrik azaldu duenez, Berangoko lantegian lau pertsona bakarrik egon dira zeregin horretan, beste denak betiko motorrak egiten ibili diren bitartean, baina beste modu batean, «funtzionatu ez duena».

Fede Fernandez Lopez langile-batzordeko idazkariak gogoratzen duenez, Alconza oso bideragarria izan da 2015era arte: «2014-15 aldia etekin gehien eman dituen izan da». Hala ere, hortik aurrera, zuzendaritza berriak egindako moldaketek gainbehera ekarri zuten lantegira: «Eraldaketa ez zen esan zutena». Dioenez, 2017tik 2019ra lan handia izan zuten bertan, hala ere, batez beste, urtero, bost milioi euro inguruko galerak izan zituen Alconzak. «Ez dugu ulertzen hori, zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta galera gehiago genuelako», deitoratu du langile-batzordeko kideak, «ez dugu ulertzen galera horiekin kudeaketa aldatu ez izana. Zerbait egon da txar-to, eta hala jarraitu dugu 2022ra arte».

Kontuak horrela, egoera jasanezina zela-eta, 2021aren amaieran, zuzendaritzak ikerketa bat bideratu zuen lantegiaren bideragarritasun-egoera zein zen ikuskatzeko. Joan den urtarrilean aurkeztu zuten txostena, langile-taldea txikitzea «aukera bakarra» zela ondorioztatzen zuena. Hala ere, langile-batzordeak uste du hori ez dela aukera bakarra, «arazoa koiunturala delako, ez estrukturala». Izan ere, azpimarratzen dutenez, sektore askotan krisia dagoen arren, euren lan-sektorean lana egon badago, horren adibide garbia dute konpetentzia zuzena duten Indar enpresa. «Gurean, ez dute lana ekarri, edo ez dute jakin egiten, eta, orain, gastuak txikitu nahi dituzte langile-taldea murriztuta, besterik gabe», salatu dute grebalariek. Ildo horretan, egorari aurre egin eta fabrikaren norabidea bide onean jartzeko industria-plan berri bat garatzeko lanean jar daitezzen eskatu dute.

BORROKA AMAIGABEA. Ekainaren 7an bete zituzten grebalariek 100 egun protestan, kalean, eta, printzipioz, hala segituko dute ekainaren 28ko epaiketaren egunera arte. Diotenez, bidea ez da xamurra izaten ari, besteak beste, joan den apirilaren 25ean greba-hausleak fabrikara lanera sartu zirenetik. «Enpresaren probokazioa da hori, telelanean ibili daitezkeelako; langileon arteko konfrontazioa bilatu dute», salatu du Fernandez Lopezek. Lehenengo aste horretan, lantegiko atearak itxita mantentzeko herri-harresiak eta pike-teak egin zituzten grebalariek, eta Ertzaintzaren oldarkeria zein Eusko Jaurlaritzaren esku hartze falta salatu dute behin baino gehiagotan, «Bizkaiko beste hainbat lekutan bezala, jipoitu gaituzte eta Jaurlaritzak beste alde batera begiratzen ari da uneoro». Dena dela, inguruko bizilagun, elkarte, udal –Berango eta Getxo– eta erakundeetatik jasotako babesa «biziki» eskertu dute: «Izugarría izan da. Ez dugu hitzik sentitzen duguna azaltzeko». ▶



Ekainaren 7an 100 egun bete zituzten langileek greban; egunero, lantegiko atean ibili dira.



Apirilaren 25ean greba-hausleak agertu ziren lanera, Ertzaintzak lagunduta.



Kaleratutako 25 beharginak laneratzea eskatzeko hainbat manifestazio jendetsu egin dituzte.

Jaiak Erandiogoikoko eta Kukularrako festak

Ekainak festa ekarri du Erandioko auzoetara

Daborduko hasi dituzte udako jaiak Erandioko auzoetan; hurrengo ospakizunak Erandiogoikoko Gorpuzti jaiak eta Kukularrako festak izango dira.

Ekainean, Erandioko hainbat auzok ospatzen dituzte euren jaiak; lehenak, Faoetako San Bernabe eta Martiartuko San Antonioak izango dira, ekainaren 11n biak. Horien ondoren, Erandiogoikoko Gorpuzti festen txanda izango da, eta udako solstizioaren ondoren etorriko dira Kukularra auzoko ospakizunak.

Ilargi-egutegiaren arabera mugitzen diren Erandiogoikoko Gorpuzti jaien hasiera ekainaren 16an izango da, eguenean. Bestalde, zozketa bidez aukeratzen duten pregoia Herri Bideak Kate Barik elkarteari egokitu zaio aurtentzen, eta eurak arduratuko dira jaiari hasiera emateaz. Domekara bitartean, auzoan ederto pasatzeko hamaika aukera egongo dira: umeentzako jolasak, musika, Goi Alde dantza-taldearen emanaldia... Ez dira faltako ere herri-afaria eta herri-bazkaria, eguenean eta zapatuan, hurrenez hurren.

Sanjoanetako suen garra itzali bezain pronto hasiera emango diete Kukularra auzoko jaiari. Ekainaren 24tik 26ra bitartean, hainbat ekintza egingo dituzte. Altzaga ikas-

Egitaraua, nabarmendutako ekitaldiak

ERANDIOGOIKOA

Ekainak 16, eguena

- 19:30 Txupinazoa.
- 19:30 Buruhandiak eta trikitilariak.
- 21:30 Herri-afaria.
- 23:30 Erromeria: Iratzar.

Ekainak 17, barikua

- 18:30 Olgetan solas familia-jokoak.
- 20:30 Goi-Alde dantza-taldearen ikuskizuna.
- 21:30 Pintxo solidarioa
- 23:00 Kontzertuak: Matxinada, Mixerableak eta DJ Munza.

Ekainak 18, zapatua

- 15:00 Herri-bazkaria.
- 17:00 Taberna ibiltaria.
- 22:00 Erromeria eta DJ Mario.

Ekainak 19, domeka

- 14:30 Tortilla-lehiaketa.
- 17:30 Pancho Balbuena mariatxia.

KUKULARRA

Ekainak 24, barikua

- 19:00 Txupinazoa.
- 21:00 Erromeria: Erruki.

Ekainak 25, zapatua

- 12:00 Paella-txapelketa.
- 17:20 Patinete-txapelketa.
- 21:00 Kontzertuak: OstiKda! elektrotxaranga, Ugerda eta Tierra Kritikal.

Ekainak 26, domeka

- 13:00 Tortilla-txapelketa.
- 16:30 Kantutan.

Udako solstizioa

Jaiez gain, udari ondoetorria ere emango diote Erandiogoikoan.

tolako frontoian kontzertu hauek eskainiko dituzte aurtentzen: barikuan, Erruki taldearen erromeria eta, zapatu gauean, OstiKda! elektrotxaranga, Ugerda eta Tierra Kritikal taldeak. Bestalde, ez dira faltako tortilla- eta paella-txapelketak. ◀



**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra Periodontzia
Ortodontzia PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

Īñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 **Algorta** **Telletxe 1**
94 430 23 45 94 460 27 41

Barrika Mugikortasuna

Auzoak lotzeko bidegorri-sare berria

Barrikako Udalak udalerriko bizikletaren plana onetsi du; herritarrei bizikleta erabiltzeko bide bat eman go die, bai eta udalerriko mugikortasun-arazoa konpontzeko bideen sare bat sortu ere. Helburu nagusia da bizikletentzako bideak sortzea, erdigunea eta urrunen dauden auzoak lotzeko; hartara, udalerri barnean nahiz kanpoan, bizikletentzako sare bat sortuko da, eta barrikoztarrei egindako inkestetan jasotako mugikortasun-arazoak konponduko dira, udal-iturrien arabera.

Horri buruz, Barrikako alkate Roberto Muñozek adierazi du udalerriak «benetan beharrezkoa den» bizikletentzako bide bat izango dela, «eta bizikleta seguru erabiltzeko

ateak irekiko dizkigu». Izan ere, gogoratu duenez, gero eta jende gehiagok erabiltzen du garraio hori udalerriaren arteko joan-etorrietarako, «eta erakundeetatik erraztu egin behar dugu halakoen erabilera, bide seguruak sortuz, eta kirolerako, osasunaren onurarako, lanerako eta abarrerako erabil ditzaten sustatu».

Udalak azpimarratu du Mankomunitateak urteak daramatzala hainbat mailatan lanean eskualdean bizikleta erabiltzearen alde. Besteak beste, mugikortasun jasangarriko planak idatziz, bizikletentzako udal-planeamenduak zehaztuz, eta bizikleta erabiltzeko hainbat azpiegitura zerbitzuan jarritz. Hala, bizikleta tresna alternatibotzat erabil dadin sustatzea bilatzen du. ◀

Getxo EuskarAbentura

Maulen hasi eta Getxon amaituko da, izaera ibiltaria berreskuratuta

Inoiz baino gazte gehiagok eman du ize-na aurten EuskarAbentura espedizioan; hala ere, denera, 128 neska-mutilek parte hartuko dute. Aurtengo edizioak jatorrizko izaera ibiltaria berreskuratuko du, eta Euskal Herri osoan barrena ibiliko da, Unesco Gizateriaren Ondare izendatutako leku eta eraikinak bisitatzen, baita natura-ondasun eta ondasun historiko zein kulturalaren adierazle direnak ere.

Uztailaren 1etik 31ra bitartean, 31 etapatan, 700 kilometrotik gora egingo dituzte. Mauletik (Zuberoa) Getxora, zazpi lurraldeak zeharkatzen dituzten Donejakue bideetan barrena. 35tik gora herri eta hiritik pasatuko da espedizioa, eta, besteak beste, Añanako Gesaltzak, Pasaiaiko Albaola Itsas Kultur Faktoria, Gernikako Juntetxea eta Bizkaia Zubia beren-beregi ezagutzeko parada izango dute parte-hartzaileek. ◀

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA UDAKO IKASTARO TRINKOAK CURSOS INTENSIVOS DE VERANO 2022

Ekainaren 30etik Uztailaren 22ra arte / Del 30 de junio al 22 de julio
(80 eskola-ordu / horas lectivas)

MAILA GUZTIAK / Todos los niveles
Ordutegia / Horario: 08:00 - 13:30

Aurrematricula ekainaren 24ra arte / Prematrícula hasta el 24 de junio

Irailaren 2tik 23ra arte / Del 2 al 23 de septiembre
(45 eskola-ordu / horas lectivas)

B1-B2-C1 (azterketak prestatzeko soil-soilik)
Ordutegia / Horario: 09:00 - 12:00

Aurrematricula uztailaren 22ra arte / Prematrícula hasta el 22 de julio

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)

Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo
944 646 299 – euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu



Jaiak Sopelako sanpedroak

Badatoz Sopelako San Pedro jaiak!

Gorka Granado Terrones dantzari gaztearen pregoiagaz hasiko dira aurtengo sanpedroak. Uztailaren 15ean izango diren Larrabasterrako jaiak ere iragarri dituzte.

Sopelako San Pedro jaietarako egitarau oparoa prestatu dute aurten Udalak eta jai-batzordeak. Gainera, azken urteotako geldialdiaren ostean, festak indarrez beteta datozela baieztatu dute programa osatzen aritu direnek.

Aurten, Gorka Granado Terrones arduratuko pregoiaz; dantzari gazteak Euskal Herriko Dantza Txapelketa irabazi zuen iaz. Beragaz batera, Txokoholik taldeak jaurtiko du jaien hasiera iragartzeko txupina.

Guztira, zortzi jaiegunitarako hamaika jarduera prestatu dituzte adin eta gustu guztientzako modukoak: Platero y tú eta Extremoduroko kide Iñaki Uohoren kontzertua, Esne Beltza, Sorotan Bele taldearen tributua, zirku ikuskizunak, ohiko zantzo-txapelketa, kuadrillentzako norgehiagokak edota paella-lehiaketa egongo dira, beste askoren artean.

Gainera, uztailaren 15ean abiatuko diren Larrabasterrako jaietako egitaraua ere eman dute ezagutzera: herri-bazkaria, bertso-saioa, elektrotxaranga eta eskualdeko DJ-ak egongo dira Sopelako auzo horretan. ◀

Egitaraua, nabarmendutako ekitaldiak

Ekainak 23, eguna

23:00 Kontzertua: Nonbait erromeria, txosna-gunean.

Ekainak 24, barikua

19:00 Kuadrillen jaitsiera, txosna-gunetik abiatuta.

21:00 Pregoia eta txupinazoa.

23:00 Kontzertuak: Fraktura eta Kai Nakai, txosna-gunean.

Ekainak 25, zapatua

09:00 Argazki Rallya.

13:00 Sopela Kantariren kalejira.

14:30 Jai-bazkaria.

23:00 Uohoren kontzertua, udaletxeko plazan.

01:00 DJ sesioa, txosna-gunean.

Egun morea

Ekainak 26, domeka

11:00 V. haragi-paella txapelketa.

12:00 Bertso-saio feminista, txosna-gunean.

13:30 Mariachi Imperial.

21:30 Virgin Mari DJ eta Labana, txosna-gunean.

22:30 Kontzertua: Lowe, udaletxeko plazan.

Ekainak 28 martitzena

19:00 Antzerkia: *Akabo*, Jauregizar plazan.

20:00 Dantza: Patxi eta konpainia, udaletxe plazan.

Ekainak 29 eguaztena

19:00 Kuadrillen arteko jolasak, udaletxeko berdegunean.

20:00 Kaleko animazioa: Rockalean.

23:30 Kontzertuak: Rise to Fall eta Cobra, txosna-gunean.

Ekainak 30 eguna

20:30 Zirku gaua, Jauregizar plazan eta udaletxeko plazan.

23:00 Kontzertuak: Fraktura eta Urrats erromeria, txosna-gunean.

Uztailak, 1 barikua

14:30 Tortilla- eta sangria-txapelketa.

23:00 Kontzertua: Iheskide.

Uztailak, 2 zapatua

18:00 Kuadrillen bazkaria.

22:00 Kontzertua: Esne Beltza, udaletxeko plazan

23:30 Kontzertuak: Benetan zoro, txosna-gunean.



SERVICIO CANINO BIZKAIA

☎ 688 687 073 - 671 357 601
 🌐 serviciocaninobizkaia.com
 ✉ serviciocaninobizkaia@gmail.com
 📍 URDULIZ



GetxoGasol Euskararekin bat!
Urteko 365 egunetan gaude zabalik

• GnG tailerra • Solaguren Jatetxea
 • Denda eta okindegia • Garbiketa gunea

☎ 944 301 500 📍 Getxo eta Berango artean



4BIDE PINTURAK
Etxez-etxeko banaketa!

• Pintura eta berniz lanak
 • Paper margotuak
 • Zoruak

📍 Loroño, 2 SOPELA ☎ 685 732 104
 ✉ 4bidepinturak@gmail.com ☎ 946 762 992

Jaiak Leioako sanjoanak

Leioan dena dago prest udari hasiera emateko

Bi urte luze izan dira, baina, azkenean, bueltan dira San Juan festak; hilaren 12an hasi eta 27ra arte, jarduera kontaezinak antolatuko dituzte ederto pasatzeko.

Leioaztarrek daborduko udako solztiziorako egunak zenbatzen ibiliko dira. Azken urteotako udaldiak gogorak izan dira festarik gabe, baina ekaina hemen da eta laster hasiko dira Leioako sanjoanak. Aurten, bai Udalak baita txosnabatzen ere, jardueraz gainezka datorren egitaraua prestatu dute, hilaren 12an hasi eta 27ra arte iraungo duten jaietan ezin baino hobeto pasatzeko.

Ohitura den bezala, udako solztizioa ospatzeko, txosna-guneko ekintzarik ikusgarrienetako bat ere bueltatuko da aurten: Akelarre. Bestalde, Udalak San Juan gaueko ikuskizuna ere antolatuko du Boulevardean, Hortzmuga konpainiaren ikuskizunagaz.

Kontzertuei dagokionez, hilaren 23tik 25era bitartean non aukeratu egongo da: alde batetik, Mojinós Escocidos, Boca Beats, Dos pájaros y un trio tributo a Sabina y Serrat, Urtz eta Beietz egongo dira Aldapabarrena gunean, eta, bestetik, ETS, La Topadora, Liher, Amooma eta Basaki taldeak egongo dira Elexaldeko txosna-gunean. ◀

Egitaraua, nabarmendutako ekitaldiak

Ekainak 17, barikua

- 17:30** V. Leioako Eskalada Topaketaren hasiera.
22:30 Umore Bakarritzetak.

Ekainak 18, zapatua

- 10:30** Antzinako Egunaren hasiera, paella-txapelketan eta herri-jokoetan izen-ematea, txosna-gunean.
18:00 III. Txakolina & Musika: Lorelei Green eta Afrika Bibang, Mendibile Jauregia.
23:00 Erromeria: Garilak 26, txosna-gunean.

Ekainak 22, martitzena

- 18:00** Saskibaloitxapelketa.

Ekainak 23, eguna

- 19:00** Txupinazoa eta Pregoia. Ondoren, Kuadrillen Jaitsiera.
21:00 Pregoia txosna-gunean.
22:30 San Juan gaueko ikuskizuna Hortzmuga konpainiagaz.
00:00 Akelarrea.
00:30 Kontzertuak: Mojinós Escocidos eta Boca Beats, (Aldapabarrena); eta Urrats (txosna-gunean).

Ekainak 24, barikua

- 18:00** Kuadrillen arteko azeriaren ehiza.
20:00 Euskal kirolen gala.
20:00 Musika ikuskizunak: The Derty Gerties (Udondoko Bulebarra), Les Incognitos (Euskal Etxeen plazan) eta Majareta Rolling Band (Ikea Barrin).
23:00 Kontzertuak: ETS, La Topadora (txosna-gunean), Dos Pájaros y un trio, tributo a Sabina y Serrat (Aldapabarrena).

Ekainak 25, zapatua

- 17:00** Lur gaineko sokatirako Euskadiko Txapelketa, Udondo Bulebarrean.
19:00 Bertsolariak: Alaia Martin, Amets Arzallus, Aitor Bizkarra eta Oihana Iguaran. Boulevardean.
20:00 Ikuskizuna: BBK Dantzari Ibiltaria, Aiko Taldeagaz.
22:30 Kontzertuak: Urtz eta Beietz (Aldapabarrena); Liher, Amooma eta Basaki (Txosna-gunean).

Ekainak 26, domeka

- 18:00** Dantza-erakustaldia, Gure Ohiturak dantza taldeagaz.

VRONDO
Tabako denda

Sabino Arana 67, Leioa.
944 64 92 33

GORA
LEIOAKO
JAIK!



digitala
inpresio

Leioa

KOPILEIOA

Inprimatze Digitala
Formatu Guztietan

Sabino Arana 82, 48940, Leioa
944 649 176 - 944 014 431
monkopileioa@gmail.com

hiruka

HARTU
BOLADA ONA
GUGAZ.
EMAIOZU BULTZADA
ZURE
NEGOZIOARI!



Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaituz gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Jaiak Barrikako sanjoanak

Suaren inguruan dantzan arituko dira aurten ere

Urte biko etenaldiaren ondoren, sugarrek bere ohiko lekua hartuko dute aurten San Juan Egunaren bezperan. Gainera, egitarau oparoa prestatu dute jaietarako.

Aurten, inoiz baino lehenago eman-go diete hasiera Barrikan San Juan jaiiei. Izan ere, ekainaren 11rako da-borduko ospakizunen usaina protagonista izango da kostaldeko herri honetan. Ordurako, VI. Argazkilaritza Rally Digitala egingo dute, goizeko 08:30etik aurrera, eta, beranduago, benjamin eta alebin mailako tenis txapelketa ere hasiko dute. Gainera, herri-ibilaldia egingo dute, 09:00etatik aurrera, baita kanpoko margolarien lehiaketa ere, 12:00etatik 14:00etara.

Ekitaldi berezi horien ondoren, ekainaren 17an emango diote sanjoanei hasiera ofiziala, 19:00etan, txupinaren jaurtiketagaz. Horren ondoren, zazpi eguneko festa izango da nagusi Barrikako erdigunean, hau da: udaletxeko plazan eta inguruetan. Ohi legez, askotariko txapelketak egongo dira egunotan: pala, tenis eta gastronomikoak, besteak beste. Gainera, tripak asetzeko herri-janak ere egingo dituzte, baita dantza-plazak, erromeriak eta kontzertuak ere. Eta, nola ez, ekainaren 23an, San Juan suaren ekitaldi berezia egingo dute. ◀

Egitaraua, nabarmendutako ekitaldiak

Ekainak 17, barikua

- 17:00** Billar txapelketa, nagusien etxeko taberna.
- 18:00-21:00** Barrikako X. Pala Txapelketa.
- 19:00** Txupinaren jaurtiketa eta pregoia; ondoren, diskofesta.
- 20:00** Sardina-jana eta sagardo-festa.
- 21:00** Bidean erromeria.
- 21:00-01:00** VII. Emakumezkoen Gaueko Padel eta Tenis txapelketak.

Ekainak 18, zapatua

- 11:30-14:00** XLIV. Sukalki txapelketa. Sari banaketa, 17:30ean.
- 12:00-14:00** Umeen Eguna, puzgarriak.
- 18:00** Magia-ikuskizuna.
- 19:00** Dantza-plaza Dangislike taldeagaz.
- 20:00** Sahieski-jana.
- 21:00** Nonbait erromeria.
- 21:00-01:00** IV. Gizonezkoen Gaueko Padel eta Tenis txapelketak.
- 23:00** Kontzertua: Rock&Rollo.

Ekainak 19, domeka

- 12:00-14:00** Umeen Eguna, puzgarriak.
- 13:00** Txistorra-jana.
- 13:30** Bitsa jaia.

Ekainak 23, eguna

- 18:30** Familia ikuskizuna.
- 19:30** Susterrak, dantza-kalejira.
- 21:30** Tai Xi erakustaldia.
- 22:00** San Juan sua, akelarrea Diablos Ed Llorenc taldearen eskutik.

Ekainak 24, barikua

- 11:00** Meza nagusia.
- 12:00** Abesbatzen kontzertua.
- 14:00** Herri bazkaria.
- 17:30** Mus arina, nagusien etxeko taberna.

Ekainak 25, zapatua

- 18:00** Txirri, Mirri eta Txiribiton ikuskizuna.

Ekainak 26, domeka

- 10:00-15:00** XXVI. Nekazaritza eta artisautza azoka.
- 11:00** Herri kirol tailerra.
- 12:30** Barrikako X. Pala Txapelketaren finala.
- 13:00** Bertsolariak.
- 13:00** Barrikako Euskal Dantza taldea.



LUKIA
Komunikazio Zerbitzuak

☎ 944 911 337
 📞 688 812 368
 ✉ lukiakomunikazioa@gmail.com
 📱 @lukia_komunikazio_zerbitzuak

Zure proiektuetarako behar duzun guztia

DISEINUA • IKUSENTZUNEZKOAK • MAKETAZIOA • ARGAZKIGINTZA • PUBLIZITATEA



Leioa Sexu-indarkeria

Herritarrei eragile moreak izateko deia egin die Udalak

San Juan jaiei begira, Leioako Udalak hainbat ekintza ari da antolatzen eraso matxisten aurkako prebentzioa eta arreta hobetzeko asmoagaz. Horietako bat eragile moreak izeneko figura sortzean datza; horren bidez, herritarrak indarkeria matxistaren aurkako figura aktibo garrantzitsuak bihurtu gura dituzte.

Urte bitan geldirik egon ondoren gerta daitekeenaren aurrean, Leioan sexu-indarkeria-ri aurre egiteko herritarren inplikazioa bilatu gura du Udalak uda honetako jaietan. Gizartearen kontzientzia piztu eta areagotu gura dute alor horretan, eta, horretarako, besteak beste, ekainaren 15ean, eguaztenean, presakuntza-saio bat egingo dute eragile moreak izeneko figuren egitekoa azaltzeko eta zehaz-



Izena emateko

Saio informatiborako izen-ematea aldeztu aurretik egin beharko da, mezu elektronikoko bat bidalita Berdintasun Sailera: leioaberdintasuna@gmail.com

teko. Tabernariek, jailetako kuadrillek, talde feministek, jai-elkarteek eta txosna-batzordetako kideek parte hartuko dute sexu-erasoen eta eraso matxisten aurreko erantzuna hobetzeko eta koordinatzeko jarduera horretan.

Ekainaren 15eko saioa arrastian izango da, 18:30etik 20:30era, Kultur Leioako osoko bilkura aretoan, hain zuzen ere. Bertan, Udalak herritarrak eragile more gisa parte hartzera animatuko ditu, sexu-indarkeriaren aurkako eragile aktiboak bihurtu daitezten. Edukiera-kontuak eta bertaratzeko diren guztien beharrak kontuan hartu ahal izateko, kome-nigarritzat jo dute aldeztu aurretik izena ematea; horretarako, leioaberdintasuna@gmail.com posta elektronikokoaren bidez harremanetan jartzeko eskatu dute. ◀

ARTOLOZAGA ANAIK TAILERRAK

Gatzarriñe kalea 42, 48600, Sopela • 946 760 013 • www.talleresartolozaga.com

Hurbileko zerbitzu profesionala

Artolozaga anaiek 40 urteko esperientzia dute ibilgailuen mekanika profesionalan lan egiten. Utzi kotxea beraien esku, udan ezustekorik gabe bidaiatzeko.

Autoen mantenua eta konponketak egiteko esperientzia eta ezagutza dute Artolozaga anaiek. 40 urteko bermeagaz, automobilen mekanikan, karrozerian eta elektronikan adituak dira. Gainera, Bosch Car Service sare ofizialeko kideak dira, horrek ematen dien kalitate eta konfiantza bermeagaz.

Udaldian, etxeko ibilgailuak bidaia luzeak egiteko erabiltzen dira, horrexegatik, errepi-dera atera aurretik, autoaren egoera orokor-ri erreparatzea ezinbestekoa da, oporretan inolako ezustekorik ez izateko. Enrike Artolozaga mekanikoak aholkatzen du gorpilen higadura aztertzea, olio-maila begiratzeko eta ihes-hoditik ateratzen den keari erreparatzea, motorra behar bezala dabilen adieraziko digulako. Dena den, komenigarriena profesional baten



Goi-mailako teknologia erabiltzen dute ibilgailuen azterketa eta konponketak egiteko.

IAT-RAKO PREST

Ikuskapenaren aurreko-zerbitzuari esker, ibilgailuaren Azterketa Teknikoa gainditzeko ziurtatzen dizute.

eskuetan jartzea dela dio Artolozagak, horrela, etorri daitezkeen matxurak ere saihestu daitezkeelako. Horretaz gain, erregaiaren kontsumoak arduratzen bazaitu, sistema informatikoei esker ibilgailuaren erregai-erabilera ere aldatu dezakete; izan ere, mekanika tradizionalan adituak izateaz gain, teknologia berrietara egokitutako zerbitzua ere eskaintzen dute.

Euskarari atara kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Asau baino, hobeto paraje!

Hizkuntza gizakion kontua da, kontu soziala. Gizakion hizkuntza ohituretan eragina duten hainbat faktore daude: adina, ezaugarri sozio-ekonomikoak, hezkuntza- ohiturak, sorlekua, baina baita geografia eta orografia ere! Ba al dakizu zergatik?

Lurretik Ilargira bide laburrenetik joan nahi badugu, 384.000 kilometroko bidaia egin beharko dugu. Oker ez bango, estatubatuar astronauta hain famatu horiek bost egun eman zituzten Ilargira joan-etorri osoa egin zuten arte. Hitz batez, urrun dago Ilargia.

Hala ere, Phileas Foggek 80 egun baliatu behar izan zituen mundu honi itzuli bakar bat egiteko. Alegia, Foggek munduari itzulia eman zionerako, NASAk hogeit aldiz egin lezakeen Ilargira joan, eta itzuli. Izan ere, bi punturen arteko distantzia aldaezina den arren, bi puntuak lotzeko behar dugun denbora eta ahalegi-na erabat erlatiboa da.

Honezkero irakurtzeari utzi ez badiozue, buruan bueltaka izango duzue: eta honek zer harreman du euskararekin edo hizkuntzarekin? Bada, hizkuntzen bilakabideak eta hizkeren joerak gogorki daude hurbiltasun edo urruntasunari loturik. Gure egunerokoan benetan garrantzitsua da hau, leku bat gertu edo urrun dagoen eta distantzia horrekiko dugun pertzepzioak erabat baldintzatuko dituelako gure mugimendu, harreman eta hizketa ohi-turak. Hiztunek eta hiztun-komunitateek gertuko jendearekin harremantzeko tendentzia dute. Uribe Kosta osoa lerro argi batek lotzen



Mapa orografikoa argi ikus daiteke Uribe Kostaren eta Busturialdearen arteko banaketa geografikoa.

du. Herriguneak elkarrekin nahiko gertu daude eta ez dago oztopo geografiko nabaririk. Horrek hiztun-komunitateak darabilen hizkera homogeneoagoa bihurtzen du. Gurean, herri-tarrak elkarrengandik gertu bizi dira, edo gure hizkeran esaten den bezala: *paraje* bizi dira.

Armintzatik Bakiora salto egiterakoan, ordea, orografia zaildu egiten da. Zer esanik ez, Bermeorantz joan nahi izatekotan, Sollube erraldoia erdi-erdian dugula. Ez da kasualitate hutsa, Uribe Kostako eta Busturialdeko hizkerak dituzten ezberdintasun nabariak eta horietako asko, ziurrenik, oztopo geografikoek eta distantziak eragindakoak izango dira.

Herrien arteko distantziak bikoiztu egiten diren bezala, hizkeren arteko distantzia ere handitu egiten da. Uribe Kostako eta Busturialdeko herri-tarrak ez dute hainbesteko erraztasunik harremantzeko, urrun bizi baitira, edo gurean esaten den bezala: *asau* bizi baitira.

Urrun edo gertu, *asau* edo *paraje*, hizkeren nolakotasuna faktore askok baldintzatzen dute. Oraingoan ikusi dugun bezala, geografia klabea da hizkeren garapen sozialean eta hala izaten jarraituko du, gure hizkuntzak eta gure hizkerak bizirik dirauten bitartean. Gure hizkera erabiltzerako orduan, beraz: *asau* baino, hobeto *paraje*! ◀





irati

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

bai
euskarari




94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Torrene, 2 48991 – ALGORTA

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31, 48930 AREETA

94 464 41 25

Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Azeri arrunta, luki, azeri gorria, *Vulpes vulpes*



Uribe Kostan beti da pozgarria azeri bategaz gurutzatzea, mundu basatira berehala eramaten gaituelako eta gure ingurunea basa-faunarena ere badela gogorarazten laguntzen digulako. Gero eta urriagoa bada ere, oraindino bada gorrotatzen eta jazartzen duenik.

Azeri gorria (*Vulpes vulpes*) Uribe Kostan geratzen den haragijale handiena da. Kanidoen familiakoa izanik, tamaina ertaineko txakur bat bezalakoa da. Agian, bereizgarriena, ikusteko zortea dugunean, bere buztana da, handia eta iletsua, ehiza-uneetan lematzat erabiltzen duena, eta mutur zorrotza, bere pintzel bereizgarriakaz. Jakintza tradizionalan bere zuhurkeriagatik bereizten da, eta, mundu paganoan, druidikoan, animalia totemikoa da, egokitza-pena, adimena, aldatzeko gaitasuna eta, beharrezkoa denean, aldi baterako erretiratzen jakitea adierazten baititu.

Azeria espezie oportunistak da, sasoiaren eta ingurunearen arabera, eskura dituen baliabideetara egokitzen dakiena. Batez ere, sagu, arratoi eta lursaguez gain, askotariko fruituak eta baiak jaten ditu, eta behar duenean, gizakion soberakinak eta zaborrak ere aprobeztatzen ditu, eta babesa aurkitzen du gure ondoan, baldin eta ez badugu harrapatzen edo pozoitzen. Auzo periferikoetatik hurbil bilatzen du babeslekua, etsaietatik urruntzeko; are gehiago, populazioak hobeak dira landa-eremuetako auzoetan mendiaren erdian baino. Batzuetan, oilategietan bajak eragin ditzake, baina beti da barrutiaren itxitu-



Askotan, ez ginateke azeriaren presentziaz jabetuko, lurraldea markatzeko bideetan edo harrietan uzten dituen gorotzengatik ez balitz.

ran akats bat aurkitzen duelako. Errua berari bota arren, gure ardura da, oilategia behar bezala itxi ez dugulako.

Bestalde, azeriak gure lurraldeko habitat guztiak menderatzen ditu: kostaldea, hariztia, haltzadia, landazabala, hezeguneak eta baita hiriguneak ere. Sasitza handietan, etxe abandonatueta, areketan, labarretan eta elikagaiak lortzeko eta kumeak aurrera ateratzeko aukera ematen dion edozein lekutan babes daiteke.

Urtarrilean eta otsailean sartzen da araldian, eta ilargi bete dagoenean entzun daitezke ibiltariak izoztuta utz ditzakeen ulu zaratatsuak. 52 eguneko haurdunaldiaren ondoren erditzen dituzte kumeak. Gutxiak biziraungo dute, baina gurasoek janaria bilatuko dute etsi-etsian, eta orduan arriskatu dira oilategiei erasotzen, beharrezkoa bada. Udan eta udagoienean, txakurkume gazteak noraezean eta janari bila ikus ditzakegu. Are gehiago, egun argiz hurbilduko dira aparkaleku eta baserrietara, oraindino ez baitira ehizan trebeak, eta, batez ere, ez direlako jabetu haientzat garen arriskuaz.

Gainerakoan, paseatzen ari garenean azeri bat topatzen badugu, goza dezagun, eta beldurrik ez izan, ez baitigu inoiz eraso egingo. ◀





AINGARA

BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

☎ 944 038 953

🌐 www.bordadosaingara.com

📍 Aurrezki Kutxa, 18 48930 Erromo · GETXO



Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu

Umoreak berriro hartu ditu kaleak

Kaleko artisten nahitaezko topagunea izan da Leioa, eta, beste urte batez, XXII. Umore Azokara hurbildu ziren 27.000 ikusle baino gehiagok jaialdiaren erakargarritasuna berretsi zuten. Izurriteak eragindako aurreko urte bietako gorabeheren ostean, indarberrituta itzuli da aurtengo Azoka. Denera, lau egunean zehar, 90 emanaldi eskaini zituzten bertaratu ziren Euskal Herriko, Espainiako Estatuko eta nazioarteko 40 konpainiek. Umorea, dantza, jolasak eta akrobaziak utzi dizkiguten irudiak dituzue hemen.

TESTUA: ANDER ZARRAGA ARGAZKIAK: HODEI TORRES













Amelia Tiganus Ekintzailea eta hezitzailea

«Gorputzaren dinamika kontsumistagaz apurtu gura dugu»

Prostituzioaren miseriak azaleratu dituen emakumeetako bat da Amelia Tiganus. Bizitako esperientziatik abiatuta, gaur egun, sexu-indarkeriaren aurka eta prostituzioaren abolizioaren alde lan egiten du. Besteak beste, ikasturte honetan, Sopelako Iberre institutuan izan da proiektu pilotu bat garatzen, sinesten duelako gazteak aldaketa horren abiarazleak izan behar direla.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

Nor da Amelia Tiganus? Gatazka nahiko sortzen dit nire burua aurkeztea; prostituziotik bizirik atera den emakume gisa aurkezten naute, baina nik hori ez dut gustuko, gauza asko gogorarazten dizkidalako eta, gaur egun, beste hainbat gauza ere naizelako: ekintzailea, idazlea, hezitzailea... Kooperatibista ere banaiz, duela urte bi kide batzuek Emargi proiektua hasi genuelako Bilbon. Espainiako Estatuan eta nazioartean lan asko egin dugu, baina, orain, jende gazteagaz lan egiteko jomuga hartu dugu, uste dugulako hortik hasi behar dela sexu-indarkeriaren eta prostituzioaren katea apurtzen. Horretaz gain, migratutako emakumea ere banaiz, Errumanian jaio bainintzen 1984an; horrek, garrantzia handia dauka nire testuinguruan. Horretaz gain, langile klasetik nator, klase-kontzientzia nabarmena daukat eta agerian jartzen saiatzen naizen gauza bat da. Txikitari, irakaslea edo medikua izan gura nuen, ikasle ona bainintzen, baina ez nuen lortu, guztien puta bilakatu nindutelako; guztiena diot, putak ez garelako proxenetenak, Estatuaren eta beste alde batera begiratzea nahiago duten erakunde publikoen biktimak ere garelako. Ekintza edo omisioagatik abandonatzen gaituzte, eta esaten dute nahi dugulako gaude la hor sartuta. Matxismoa, arrazismoa edo kolonialismoa bezalako errepresio-ardatzek eragiten duten zapalkuntza txikiarazten dute

«Hamahiru urte nituela bost gizonen bortxatu ninduten; ez zen talde-bortxaketa bat izan, orain esaten duten moduan, aldi berean jasan nituen bost bortxaketa baizik. Lan egiten dudana neska gazteek kontatzen didatena itzela da, nire kasuan ez bezala, grabatu ere egiten dute eta gero sare sozialetan partekatu, itzela da, ahaztea ere galarazten dutelako»

guztia erabaki pertsonal batera mugatuz. 18 urteetatik 25era sexualki esplotatu ninduten eta, tarte horretan, 40 prostituzio-etxe baino gehiagotik pasatu nintzen. Hortik atera eta zazpi urtera feminismoari esker lortu nuen horretaz guztiaz konturatzea.

Gure gizarteak nola bizi du prostituzioa eta horren atzean dagoena? Uste dut hemengo gizarteak beldurra diola miseria hori azaleratzeari. Dena den, uste dut gauzak aldatzen hasi direla, guraso asko arazoa euren etxeetan ikusten hasi direlako, pornografia kontsumoagatik, sexu-erasoengatik edo alaben portaeragatik, hain zuzen. Gakoa ez da fokua neskato horien familietan jartzea, semea sexu-erasotzaile bihurtu ez dadin hezteko baizik. Hori ez da mutil gazteen erruagatik gertatzen, gizatasuna kentzera dedikatzen den industria itzel bat dagoelako baizik. Pornografiaren bitartez deskonexio moral eta enpatikoa sortzen da, eta emakumeak eiakulatzeko objektu hutsak bilakatzen dituzte beraientzako.

La revuelta de las putas liburuan Espainiako Estatuan dagoen prostituzioaren errealtatea azaleratzen duzu. Nolakoa da? Europan prostituzio gehien kontsumitzen duen herrialdea da Espainia, munduko hirugarrena, Tailandia eta Puerto Ricoren atzetik. Bestetik, Europa aberatsean sexualki esplotatuta

dauden emakumeen % 60 Errumaniatik datoz. Hori guztia erraza da esaten, baina zer pentsatuko zenuke errumaniarrak izan beharrean euskaldunak izango balira? Errumania negozio kriminal multinazional horren lehengaien esportatzaile handia da. Sobietar Batasuna desagertu zenean, egokitze-prozesua oso latza izan zen Errumanian, eta ez zen lortu Europako beste herrialdeen parera jartzea. Herrialde aberatsetan emakumeek esku-bideak lortu dituzte, baina Errumanian ez da horrela izan, eta, mendebaldeko herrialdeetako gizonen euren pribilegioak mantendu dituztenez, prostitutak beste herrialde batzuetan bilatu behar izan dituzte, kasu honetan, Errumanian; gainera, estatuen oniritzia dute, horretarako lekuak izaten uzten dietelako. Feminismotik libre dagoen gizarteko abagune bakarra da prostituzioa, horra doazen gizonen gizarteko beste inon ezin dezaketelako hor egiten dutena egin. Sexualki desiratzen ez duen emakume bati ahotik, baginatik eta uzkitik zakila diruagatik sartzen dion gizon bati ezin zaio bezero edo erabiltzaile deitu, hori sexu-eraso bat baita.

Prostituzioa dago eskaria dagoelako, ala prostituzioa eskaintzen delako dago eskaria? Liburuan gai horri erantzuten saiatzen naiz. Nire ustez garrantzitsua da abolizioaren kontzeptua ondo azaltzea, ez baita debekatzea; abolizioa hori baino askoz ere gauza konplexuagoa da. Adibidez, Errumanian prostituzioa debekatuta dago, eta teoriarik aktore guztiak pertsegitzen dituzte, baina praktikan, emakumeek bakarrik sufritzen dute jazarpena. Eredu horrek ez dauka giza esku-bideen aldeko ikuspeirik, ezta inondik ere. Aldiz, abolizioak prostituzioari legitimitatea kentzea bilatzen du, baina, horretarako, tresna juridikoak behar dira. Genero berdinen arteko ezkontza baimendu aurretik, biztanleriaren % 40ak uste zuen ez zegoela arazorik alor horretan, baina legea egin ostean, % 80aren onespina zuen. Beraz, legeek ere hezten gaituzte, eta prostituzioa emakumeen aurkako indarkeria dela dioten tresna juridikoak behar ditugu, mundu horretatik ateratzen diren emakumeei babesa emateko: terapia, aholkularitza eta errenta bat, adibidez. Bestalde, proxenetismo forma guztiak zigortzearen aldekoak gara baita ere. Baina funtsezko gakoa eskariari pizgarria kentzea da, eta, horretarako, heziketa berebizikoa da.

Sexuak izugarritzko garrantzia du gure gizartean, baina, aldi berean, tabua izaten jarraitzen du. Zergatik? Bai, sexua bekatu izatetik dena balio izatera pasatu da, baina

10

gizonetik lauk
prostituzioa
kontsumitzen dute
Espainiako Estatuan.

5

milioi euro mugitzen ditu
egunero prostituzioak
Espainiako Estatuan.

%60

Europa mendebaldeko
sexu-esplotazio sisteman
dauden emakumeen
portzentaje hori
errumaniarrak dira.

«Suediak, 1999
urtetik, putazaleak
zigortu eta
sexu-erasotzailatzat
hartzen ditu.
Horren ondorioz,
gaur egun, ia ez
dago prostituziorik,
eta proxenetak
ezin dira antolatu
hemen bezala.
Gazteengan aldaketa
erradikal bat eman
da, beraientzako
pentsaezina
da sexuagatik
ordaintzea; agian,
hemen ere belaunaldi
batzuk pasatu
beharko dira hori
bera gertatzeko»

horretaz berba egin gabe jarraitzen dugu. Feministok hainbeste gauza ditugu borrokatzeko eta salatzeko askotan eztabaida horretan tematzen garelako. Emagritik lortu gura duguna da etika presente dagoen sexu-ereduak eraiki eta transmititzea. Pertsonak diren moduan onartzeko beharra azpimarratzen dugu, eta saiatzen gara pertsonak objektuak bezala erotizatzen dituen begirada hori aldatzen. Guk gorputzaren eta irudiaren dinamika kontsumista horregaz apurtu gura dugu, eta transmititu gura duguna da pertsonak baloratu daitezela ez duten fisikoagatik, barruan dutenagatik baizik; hau da, sexualitatea ez dadila zakil batera eta zulo batzuetara mugatu: sexurako organorik garrantzitsuenen burmuina bada eta handiena azala bada, hor gauza asko ari gara galtzen.

Eta gazteek nola sumatzen dute hori? Emakume gazteak dira horretaz gehien konturatzaren direnak. Gizarte judu-kristauan beti egon da emakume on eta txarren arteko bereizkeria hori, baina gizartea aldatzen ari da eta moral neoliberal bat ari da ezartzen; horren ondorioz, emakume gazteek arinago sentitzen dute enpatia, nahiz eta putak ez izan, kasu askotan horien moduan tratatzen dituztelako; erabili eta botatzeko objektu moduan tratatzen dituzte, gizarte kontsumistan beste hainbat gauzagaz gertatzen den moduan. Hori sexu-harremanetara eta emozioetara ere eramaten da; sexualitatea ez da kafe bat hartzearen modukoa, hainbat emozio eta sentimendu inplikatzeko dituelako.

Nola uste duzu irauli daitekeela hori? Erantzuna ez da erraza, batez ere, kontutuan izanda zer-nolako industria dugun aurrean. Abolizioaren alde gauden feministok pentsatzen dugu gaztetxoek eduki pornografikoetara sarbidea mugatu behar zaiela. Gero eta psikologo gehiago ari dira ohartarazten disfuntzioa duten nerabeen kopurua goraka doala, daborduko ez direlako kapazak benetako emakume bategaz eszitatzeke, indarkeriarik ez badago. Guretzako garrantzitsua da eduki horietara sarbidea mugatzea, ikusi dugulako 11 edo 12 urteko umeak adingabeentzat debekatuta dauden bideo-jokoetara jolasten dutela; zentzu horretan, gurasoen papera berebizikoa da, beraiek baimentzen dietelako horrelako edukiak kontsumitzea. Baina ezin gara horretara mugatu, ezin duzu besterik gabe debekatu, hori pedagogia prozesu bategaz lagundu behar delako. Gazte horiei akonpainamendua egin behar zaie, gai horien inguruko hausnarketa bultzatu eta beraiekaz zuzenean berba egin behar dugu.



Idazlea eta ekintzailea izateaz gain, nerabeakaz sexu-eskubideen inguruko tailerrak ematen ditu Tiganusek, besteak beste.

Sare sozialen papera ere nabarmentzen duzu. Zergatik? Telefonoagaz hazi diren 13 urteko gazteek, adibidez, Onlyfans bezalako sare sozialak ezagutzen dituzte. Instagram bezalako sare sozial horretan, edukietara sartzeko ordaindu behar da, baina nork ordainduko luke edonoren Instagram kontua ikusteagatik? Zerbitzu horren bitartez, neska gazteei eduki pornografikoak sortzera bultzatzen zaie diruaren truke. Gizartetik helarazten den mezuak esaten die ondo dagoela gortutzagaz etekina ateratzea, eta, helduok hori bultzatzen jarraitzen badugu, neska gazte horiek ez dira kontziente izango egiten ari direnaz eta izan dezakeen eraginagaz. Proxenetak horretaz konturatzen dira, eta eskari edo arrakasta gehien dutenak hautatzen dituzte prostituzioan sartzeko bidean jartzeko. Hain surrealista dirudien hori orain eta hemen ari da gertatzen, eta, kasu askotan, gurasoen aurrean ematen da. Putazaleak ez dira zertan burdel batera joan behar, nahikoa dute telefono aplikazio batez gura duten emakumea aukeratzeko. Gainera, orain kilometro zeroeko produktua ere eskatzen dute, ekologismoaren kontzientzia horrek bultzatuta, ez baitituzte atzerriko emakume esplotatuak gura, eta sare sozialak tresna ezin hobeak dira horretarako.



Emargi

Sexu-esplotazioaren aurka lan egiten duen irabazi asmorik gabeko erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-harremanak sustatzen ditu, filosofia feministan oinarritutako balioak sustatuz eta harreman-eredu sexual-afektibo berriak garatuz.

Ikasturte honetan proiektu pilotu bat garatu duzue Sopelan; nolakoa izan da esperientzia? Hainbat tailer eta berbaldi eman eta gero, azkenean Emargi kooperatiba sortzea erabaki genuenean, pentsatu genuen tailer bat edo hitzaldi bat ematea ez zela nahikoa. Gure ardura da neska eta mutil gazteak aldaketarako subjektu aktibo bihurtzea, hau da, prozesuari jarraipen bat ematea. Horregatik, Emargin kanpaina integralak sortu ditugu, eta, apirilean, Sopelako Iberre institutuan proiektu pilotu bat garatzen hasi ginen. Horretan, sei tailer egin ditugu, batzuetan sexuen arabera banatuta, eta hainbat gailandu ditugu gazteakaz: maitasuna, sexu-indarkeria, sare sozialak, feminismoa... Mutilek dituzten erreferente gabezia ere aztertu dugu, eredu bakarrak youtuberrak eta futbolariak edo horrelakoak dituztelako. Bukatzeko, ikasle batzuek ekintza jakin bat egin dute, eta, laster, proiektu horren baitan sexu-indarkeriaren aurkako gazteen lehen elkartearen sorrera ikusiko dugu. Guk hainbat aukera proposatu dizkiegu aldaketa hori bultzatzeko beraiek egon daitezzen erdigunean. Askotan, helduok gutxietsi eta umetu egiten dugu gazteek duten adimena eta gaitasuna; sinesgaitza da akonpainamendua egiten ez jakiteagatik alferrik galtzen ari garen potentziala. ◀

Ekaina-uztaila

**Ikusi hilabete honetako
jaien programak
10. orrialdetik aurrera**

Barrika

Ekainaren 11tik 26ra

Barrikako San Juan jaiak

Ikusi 14. orrialdea.

Erandio

Ekainaren 14tik 21era

**Erakusketa: Emakumeak
museoan**

Irailaren 23a plazan eta Etxegorriin

Bilboko Arte Ederren Museoa kalera aterako da.

Ekainaren 16tik 19ra

Erandiogoikoko Gorpuzti jaiak

Ikusi 10. orrialdea.

Ekainak 18, zapatua

Antzerkia

19:00 | Josu Murueta Kultur etxean

Astrabuduko erretiratuen antzerkia.

Ekainaren 24tik 26ra

Kukularrako jaiak

Ikusi 10. orrialdea.

Ekainak 26, domeka

Harrotxiki

11:00 | Josu Murueta plazan

LGBTI+ Eguna dela-eta, txikientzako jarduerak.

Getxo

Ekainak 12, domeka

**Kontzertua: Goizargi Gospel
Choir**

21:30 | Muxikebarrin

Hamabi ahots bikain batu dituzte Ramón Escaléren
zuzendaritzapean.

Ekainaren 15etik 19ra

Getxoztar Dantza Astea 2022

Muxikebarrin

200 ikasle baino gehiagoren emanaldiak.

Ekainak 17, barikua

Zirkua: Mikra (Kalefest)

20:00 | Santa Eugenia plazan

Antzerkia eta akrobaziak bateratzen dituen lana.

Ekainak 19, domeka

Dantza: Geure(r)a (Kalefest)

22:30 | San Nikolas plazan

Dantza bertikalaren ikuskizuna.

Ekainak 24, barikua

Balkoitik Balkoira

21:30 | Portu Zaharrean

Unai Iturriaga eta Nerea Elustondo bertsolariakaz.

Ekainak 25, zapatua

ALBE Eguna

11:00 | Uribe Kostatik

Egunpasa ederra ALBEkideak biltzeko.

Ekainak 25, zapatua

Antzerkia: Psike (Kalefest)

22:00 | Santa Eugenia plazan

Bidaia harrigarria pentsamenduetara.

Ekainak 26, domeka

Antzerkia: GenEroa (Kalefest)

13:00 | San Nikolas plazan

Genero ikuspegiaren inguruko lanketa, dantza
original bezain berritzaileagaz.

Ekainak 26, domeka

**Antzerkia: Bidearen amaiera
(Kalefest)**

19:00 | San Nikolas plazan

Hortzmuga teatro konpainiaren lana.

Gorliz

Ekainak 18, zapatua

Jolasean Blai: emozio jolasak

12:00 | Sertutxenan

Euskaraz olgetan ederto pasatzeko.

Ekainak 18, zapatua

Arte erakusketa: Susana Sirozi

12:00 | Udal-erakusgelan

Ekainak 18, zapatua

Gitarra jaialdia

18:00 | Iberre plazan

Trasteren eskutik.

Ekainaren 29tik uztailaren 3ra

Getxo Jazz 2022

Muxikebarrin

Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 45. edizioa.

Leioa

Ekainaren 12tik 27ra

Leioako San Juan jaiak

Ikusi 13. orrialdea.

Uztailak 5 eta 6

Antzerkia: Oh-Pera!

18:00 | San Bartolomeko eliz plazan eta

Lamiakoko Juan de Ajuriaguerra plazan

Antzerkia, umorea eta zirkuaren arteko nahasketa.

Plentzia

Ekainak 12, domeka

Antzerkia: Y comieron perdices

19:30 | Goñi Portalen

Helduentzako antzerki amateurra.

Ekainak 16, eguna

Jolasean Blai: barreterapia

17:30 | Goñi Portalen

Euskaraz aritzeko umeentzako jarduera.

Ekainak 18, zapatua

Zhineng Qigong ate irekiak

11:30 | Goñi Portalen

Jatorri txinatarreko praktika, gorputzaren
eta adimenaren ongizatea eta osasuna
bilatzen duena.

Ekainak 19, domeka

Artisautza azoka

11:00 | Udaletxearen atzeko futbol-zelaian

Ekainaren 19tik 22ra

Elkano Itsas Herria

500. urtemuga lehen zirkumnabigaziotik eta itsas
ondare partekatuaen jaia.

Ekainak 23, 24 eta 25

X. Lanbro Beltza

Goñi Portalen

Eleberri eta zinema beltzaren topaketa.

Ekainak 24 eta 25

Bizkaia harro, zu ere harro

Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren jaialdia.

Ekainak 25, zapatua

Otxote Txipli Txapla

Ukrainan bakearen aldeko musika.

Sopela

Ekainaren 17tik 19ra

**II. Argazkigintza
jardunaldiak**

Kurtzio kultur etxean

Uribe Kostako argazkilari taldeak antolatuta.

Ekainak 19, domeka

Kosta Trail

Udaletxeko plazan

Informazio guztia kostatrail.com webgunean.

Ekainaren 24tik uztailaren 2ra

Sopelako San Pedro jaiak

Ikusi 12. orrialdea.

Urduliz

Ekainak 17, barikua

Jolasean Blai: herri orienting

17:30 | Antsonekoa plazan

Euskaraz olgetan ederto pasatzeko aukera.

2022 GETXO BONO

*Gozatu!
¡Disfrútalo!*



IKUSI BERRIKUNTZAK
VER NOVEDADES



Getxo
bizi ezazu

Lehen/Orain **Erendio Goikoa, 1960ko hamarkadan**



ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN ARTXIBOA

Uribitakora



TESTUA
Galder Bilbao
Txapi

DOINUA
Gatika, Udondo
eta Algorta/
Familia du
inporta

ARGAZKIA
Hodei Torres

Badia den paisaia

*Izugarrizko lekua aurrean
Begientzako oparia.
Uretan buzti hondarraz goza
Turistarentzat saria.
Belauntzi txiki baten gainean
Sasikapitain nagia,
Arrantzalea kostaldean gertu
Arrainen kaña jarria;
Zelako ezuste atsegina da
Gorliz Plentziako Badia.*

*Gizarte illunak eskeintzen digu
Behin ta berriz erasoak,
Itsaso eta lurrean daude
Etsai eta marrazoak.
Jateko pixkat soillik behar dugu
Ta edateko ur basoak,
Eguraldi on ta aisialdiaz
Ahaztuta arazoak;
Edonor biziko litzateke
Zeharkatzen itsasoak.*

*Piraten bizitza onena da
Argi dio bere kantak.
Rona edaten eta abesten
Iskanbilak ta zaratak.
Belauntzizale ta yatedunak
Dira pirata galantak,
Baina famili arriskutsu bat
Badago sortzen enbatak;
Begiko partze ta ontzi gabeko
Mikrofonoko piratak.*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

Nazka

«Denborarekin, eszena indartsuagoa izango da»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO

ARGAZKIA: NAZKA ▶

Argia itzaltzen ari zela, belaunaldi berririk ez genuela izango uste genuela eta lekukoa nork hartuko zuen geure buruari galdetzen ari girela, bat-batean, laukote bat iluntasun horretatik pausoz pauso ateraz, bere lekua egiten hasi da. Badirudi argi dutela geratzeko etorri direla, eta, are argiago daukatenak, kontzertuen lehen lerroan duten lagun-kuadrilla erraldoia, besoak astinduz uneoro «Nazka!» oihukatzen dutenak.

Nortzuk zarete Nazka? Azaldu egiguzue labur zeuen historia... Taldea 2020ko udan Agurainen (Araba) geundela egitea erabaki genuen; baina, inork ez zekienez musikaz, lehen pausoak hurrengo Gabonetan eman genituen. Hasiera batean, Manex, Fili, Saras eta Xabi ginen taldekideak, eta bakoitza bere instrumentuarekin kontaktua izaten hasi zen. Lehenengo entseguak Grabasonic-en egin genituen, eta, beranduago, Txorimalon egitea lortu genuen –eskerrik asko, Zunbeltz–. Lehen kontzertua Txorimalon bertan eman genuen, Manex eta Fili gitarrak, Trespu baxua, Maltzur bateria eta Saras eta Xabi abeslari zirela, baina azkenengo eta gaur egungo taldea Trespu (Aimar), Maltzur (Azkorra), Fili (Oinatz) eta Manex gara.

Talde hain gaztea izanda eta bizi garen garaiak ikusita, nondik datorkizue influentzia musikala? Batez ere etxean gurasoek jarritako musikagatik sortu zitzaigun musika honen inguruko interesa, hala nola La Polla Records, Eskorbuto, Cicatriz, Deskontrol eta Ukabilkada. Eta laurok gustu nahiko antzekoak ditugunez, erraza egin zaigu taldea aurrrera eramatea.

Zuen kontzertuetan lagun kuadrilla majoa egoten da lehen lerroan. Gainera, bertan kaniak, borrokak eta skinheadak ikusi daitezke. Zelan da posible nahasketa berezi hori? Festa delako guztioi batzen gaituena. Baina egia da gure inguruan denetariko jendea dagoela, eta haiek erakartzea lortu dugula.



Rocking Loud estudioarekin lanean

Uneotan, euren disko berria kaleratzeko lanean ari dira Rocking Loud estudioan. Diotenez, uda amaierarako izango dute prest; «disko indartsu bat eskuartean izateko asmoa daukagu», iragarri dute.

Gainera, oso pozik gaude horrekin, eta espero dugu horrela izaten jarraitzea jende berria erakarriz.

Esan bezala, bizi ditugun garaiotan, Punk-oi! estiloa ez da arrakastatsuen. Zelan ikusten duzue zuek eszena horren perspektiba gazte batetik? Egia da gure adinekoen artean musika honen jarraitzaile gutxi dagoela, baina uste dugu, eta ikusten ari gara, gero eta talde berri eta gazte gehiago agertzen ari direla. Horregatik, denborarekin, eszena indartsuagoa izango den susmoa daukagu. Bizirik gabilta!

Epe laburrera, proiektu berririk ba al duzue; zer edo zer grabatzeko asmorik duzue? Bai, momentuz Rocking Loud estudioarekin gabilta grabaketetan, eta uda amaierarako disko indartsu bat eskuartean izateko asmoa daukagu.

Bukatzeko, azkenaldian kontzertu dezente ematen ari zarete. Zelan duzue agenda udara aldera? Badaukagu zerbait hortik lotuta, baina, momentuz, ez da ezer ofiziala. Beraz, sare sozialetan adi egon beharko zarete non jotzen dugun jakiteko, @nazkacrew instagramen. ◀

«Gu ere bagara» proiektua LGBTBI+ pertsona nagusien istorioak azaleratzeko

«Pena litzateke gure herrian gertatu diren istorio horiek guztiz galtzea»

IKER RINCON MORENO ▶

Ines Bermejo artista eta Julen Nafarrate kazetari getxoitarrek bultzatuta, ekimenaren helburua da LGBTBI+ kolektiboko nagusiei ikusgarritasuna ematea. Horretarako, arte-erakusketa bat antolatuko dute, baina, laguntza eskatu dute istorioak jasotzeko, guerebagara@gmail.com-era idatzita.

Nondik dator proiektuaren ideia? Aspaldi izan dugun kezka da. Ez dugu LGBTBI+ nagusien errealitatea ezagutzen, eta, aldi berean, ez dugu ezagutzen Getxoko memoria sexu-askatasunari dagokionez: nola bizi zuten lehen LGBTBI+ pertsonak euren orientazioa, non baten ziren, zer nolako errepresioa jaso zuten... Hori guztia jaso nahiko genuke.

Zein egoera bizi du gaur egun LGBTBI+ kolektiboak? Ikusgarritasun handia irabazi du LGBTBI+ borrokak, baina horren erabilera ere egiten ari dira erakundeak. Estereotipo bat sortzen ari da, eta kanpoan geratzen ari dira bazterreko guztiak: gorputz ez normatiboak, pertsona arrazializatuak... eta baita ere pertsona nagusiak. Ez da eurei buruz berba egiten, eta hori ere LGBTBIfobia bada.

Gurean, nolakoa da egoera hori? Gazte belaunaldiak askatasun handiagoagaz bizi dute orain euren sexualitatea, baina eraso LGBTBIfo bo ugari gertatzen ari dira gurean; Algortako inauterien kasua da argiena. Borrokan jarraitzea ezinbestekoa da, arlo guztietan.



Nafarratek eta Bermejok Udalaren Sormen Beka jaso dute proiektua egin ahal izateko.

Artearen bitartez gizarteratu. Nola?

«Arte erakusketa bat antolatzeko asmoa dugu udazkenean. Collage-aren teknika erabiliko dugu, aspaldiko argazkiak eta gaur egunekoak nahastuta. Hor bertan ere testigantzak eta istorioak irakurtzeko aukera egongo da»



QR kodea eskaneatuz gero, elkarrizketa osoa irakur dezakezu.

Zeintzuk dira aurreikusten dituzuen zailtasunak nagusien lekukotzak jasotzeko? Erronka handia izango da, oraindik orain estigmatizazio handia badagoelako LGBTBI+ nagusien kasuan. Oro har uste dugu gutxi berba egiten dela nagusien arazoez; are gutxiago pertsona nagusien sexualitateaz; eta ezer ez LGBTBI+ pertsona nagusien sexualitateaz. Guk horma horretan arrakala txiki bat egin nahiko genuke, ea lortzen dugun!

Proiektua hasi aurretik, hipotesiren bat duzue? Informazio askorik ez dugu; erreferentziaren bat bai: Azkorriko pinudiarena da eza-gunena gizonen kasuan, eta tabernaren bat ere aipatu digute. Baina errepikatuen da jendeak batez ere Bilbora alde egiten zuela bere sexualitatea askatasun handiagoarekin bizitzeko. ◀



UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Matrikula epea: ekainean eta uztaillean.

Leioa: 944 6460 63 | lamia@aek.eus

Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus

Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus

Gorliz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK

www.aek.eus/blogak/uribekosta/



Hartu eta zabaldu EUSKARAren kolorea!

MAILA GUZTIAK
HABEren mailak egiaztatzeko ikastaroak

UZTAILA

Hasi ekainaren 29an
Amailtu uztailaren 22an
Ordutegia: 8:00-13:30

93,00 €

Aurrematrikula datak: ekainaren 1etik 22ra
(aurrematrikula egiten denean 20€ aurreratu behar dira)



Leioa
GIZALDIAZ GIZALDIAZ



Mastitxu Euskaltegia
Irakasketa Zentroa

MASTITXU EUSKALTEGIA
Iparragirre etorbidea, 78
48940 - LEIOA

euskaltegi@leioa.eus
euskaltegi.leioa.com
94 464 00 02

Unai Garduño eta Leire Mijangos XXVIII. «Sanikoko» Pala Txapelketa

«Giro ona sortu eta plaza berreskuratu nahi dugu»

Ekainaren 18an jokatuko dituzte Algortako San Nikolas plazan egunotan jokatzen ari diren pala-txapelketako finalak. Getxoko eta inguruko dozenaka lagun parte hartzen ari dira herri-proba horretan.

IKER RINCON MORENO ►


Orain 30 urte egin zuten aurrenekoz oraindino ere Algortako San Nikolas plazako frontoian jokatzen den «Sanikoko» Pala Txapelketa. Aurtengoa 28. edizioa da, pandemiaren eraginez, bi urtez ezinezkoa egin baitzen hori egitea. Joan den apirilaren erdialdean jokatu zuten aurtengo lehenengo partidua, eta ekainaren 18an izango dira gizonezkoen eta emakumezkoen finalak. Saria: txapela, eta parte-hartzaile guztientzako kamiseta bana. Izan ere, Unai Garduño eta Leire Mijangos antolatzaileek azaldu dutenez, txapelketa herrikoia da hori, «ondo pasatzea eta plaza berreskuratzea helburu duena».

Hasiera batean, kategoria bakarra zegoen, mistoa; baina, apurka-apurka, mailakatu egin zituzten. «Orain dela bost edizio, bigarren kategoria bat sortu genuen, jokalarien arteko maila orekatzeko», dio Garduñok. Garai horretan, gizonezkoak eta emakumezkoak elkarrengaz jokatzen zuten, «baina emakumezko askok ez zuten parte hartzen, lotsagatik edo», gaineratu du Mijangosek. Hala, neskentzako kategoria ezberdindu bat sortu zuten urte batzuk geroago, «aparte izanda, erosoago gaudelako», eta 12 bikote parte hartzen dute aurtengo horretan. Gizonezkoen kasuan, aldiz, 29 taldek jokatzen dute lehenengo mailan, eta beste 48 bigarrenen, «Bizkaia osotik etorritakoak». Ildo horretan, Mijangosek inguruko herrietako emakumeak faltan bota eta horiek txapelketan parte hartzea animatzeko gonbitea egin du, gaur egun, jokalaria gehienak herrikoak direlako, gizonezkoen kasuan ez bezala; «asko kostatzen ari zaigu zabaltzea».

Diotenez, palarekiko afizio «handia» dago Algortan, eta horren ondorioa da «Sanikoko» Txapelketaren arrakasta. Lehiaketa herrikoia



U. Garduño eta L. Mijangos, jokariak izateaz gain, antolatzaileak ere badira. HODEI TORRES



«Frontoia arrotza egiten zitzailgun; ez zen gure espazioa. Hala ere, apurka, gauzak aldatzen joan dira».

MIJANGOS



«Askotarikoek parte hartzen dute txapelketan, zaharrak zein gazteak. Topaketa-gunea da».

GARDUÑO

dela azpimarratzen dute, dena denen artean antolatzen dutena: «Boluntario-talde bat dago, zazpi pertsonakoa, baina WhatsApp talde batekin antolatzen ditugu partidu guztiak».

San Nikolas plazako frontoian jokatzea «engantxatu» egiten duela diote biek: «Berezia da, egitura ikustea besterik ez dago; zoru irregularra, zutabeak ditu, estua eta baxua da... Gainera, jolasteko orduan ia-ia edozerk balio du». Ildo horretan, bitxitasun hori dela-eta, epaile-lanak egitea zaila dela diote antolatzaileek, eta, ondorioz, aurtengo erabaki dute halakorik ez egotea partiduetan. «Erabaki guztiak bikoteen artean adosten dira», dio Mijangosek, «bai, finaletan agian bai egongo dira epaileak, baina, orokorrean, *fair play* delakoa sustatzea nahi genuen», gaineratu du Garduñok.

Diotenez, 30 urte daramatzate pala-txapelketak antolatzen frontoi horretan, baina, gogoratu dutenez, XX. mendearen hasieran ere bertan aritzen ziren herritarrek pilota jokotzen. «Betiko herriko frontoia da, erdigunean dagoena; hala, plaza berreskuratu eta giro ona sortzea da helburu nagusia». ◀

Eritz Monasterio Lotina Arkote Arraun Taldeko kidea

«Harrobiaren aldeko apustuaren emaitza da»

Aurreko urteak klubarentzat gogorrak izan diren arren, Arkote Arraun Taldeko haurrek harrobiaren alde egindako apustuaren emaitzak erakutsi dituzte aurten.

ANDER ZARRAGA ►

Patroi ohia eta Arkote Arraun Taldeko zuzendaritza-batzordeko kidea da Eritz Monasterio Lotina; gainera, harrobiaz eta taldean euskararen presentzia bermatzeaz ere arduratzen da, besteak beste. Aurten harrobiko haurrek egindako denboraldi borobilaz eta taldearen egungo egoeraz berba egiteko egon gara beragaz.

Euskadiko eta Bizkaiko txapeldunak. Gogoratzeko moduko denboraldia egin dute aurten haurrek, ezta? Bai, duela bost urtetik, 2017tik, ez genuela horrelako garaipenik lortzen. Orduan, ez genuen Bizkaikoa irabazi, baina aurten bai; gainera, Espainiako Txapelketan segundo gutxira geratu gara bigarren bateletik. Oso pozik gaude, batez ere, kontutan izanda arraunlarietako hiru hasiberriak direla. Ez genuen horrelako ezer espero, negua gogorra izan baita eta oso baldintza kaxkarretan ari garelako entrenatzen;



«Arkoten Lemoiz, Gorkiz, Plentzia, Barrika eta Sopelako arraunlariak daude, eta arraunean dabilen Uribe Kostako talde bakarra gara. Horrek zailtasunak dakartza, taldekideak entrenatzera kotxez edo metroz etorri behar direlako. Gainera, guk ez dugu laguntzaile handirik, beraz, geratzen zaigun apustu bakarra harrobia indartzea da. Azken bi urteotan horren alde egin dugu, eta emaitzak orain ari gara ikusten»

trantsizio urtea izatea espero genuen, baina askoz gehiago lortu dugu. Azken urteotan al-daketak egin ditugu, eta taldeak harrobiaren alde egindako apustuaren emaitza da. Adibidez, ate irekien saioetara hainbat gazte etorri dira, eta horietako asko arraunlariak izaten bukatu dute.

Nagusien estropadak ere laster hasiko dira, ezta? Bai, ekainean hasiko dira KAE 1go Mailan, Bigarren Maila izango zenaren parekoan. 2017an, igo ginenetik, emaitzak hobetzen joatea lortu dugu, eta aurtengo helburua Ohorezko Txandan egonkortzea da, laugarren postuan, hain zuzen. Horretarako, Gorka Etxebarria eta Imanol Garcia, entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa, hurrenez hurren, mantenduko ditugu hirugarren urtez; oso pozik gaude beraien lanarekin.

Erabat baldintzatu dizue Arpillaoko lokalaren kontuak. Nolako da egoera? Oso gogorra izan da, alde batetik, arraunlariak oso baldintza prekarioetan ari direlako entrenatzen, eta, bestetik, taberna ere itxita dagoenez diru-sarrerara horiek ere galdu ditugulako. Hala ere, bi urteren ostean, kirolean aurrera jarraitzen dugu, baina Udalaren aldetik ez dugu laguntzarik jaso, eta apur bat etsigarria da, denbora aurrera doalako eta ez dugulako inolako konponbiderik ikusten. ◀

SANIKOLAS
TRASTOLU

ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Izan gaitezen ordenatuak

EKAITZ HERRERO SAN MARTIN xx



Mundu binario honetan, duopolioen artean ibili behar gara oin-puntetan, moralaren zaindariei estropezu ez egitearren. A puntutik B puntura doan marra zuzena irudikatu dute eta bertatik ibiltzera behartu gaituzte. Sistemaren hiritartasunaren onurez disfrutatu nahi badugu behintzat.

Emakumea edo gizona, heterosexuala edo homosexuala, atzerakoia edo aurrerakoia, edota bi puntu horien arteko hedadura. Emakumea eta gizonaren arteko jarrera horretan, sistemak nahiago du muturreko puntuetan kokatzea; hots, bata edo bestea. Baita heterosexualaren eta homosexualaren aukerekin ere. Izan gaitezen ordenatuak! Politika mundanoaren kontuetan ordea, ez da ideia ona muturrean aritzea. Eskuin muturrean kokatzen bazara, txarto. Eta ezker muturrean kokatzen bazara, okerrago. Kasu horietan, erdiko puntua izaten da egokiena. Distantziakideen talde gainpopulatuaren egotearena, alegia.

Honekin, ardien artaldeari gertatu zaiena gertatu zaigu gizakioi. Ardiak, etxekotze prozesu horretan, beraien kabuz bizirauteko gaitasuna galdu dute. Ergelak segitzen ditugun ergelak besterik ez garelakoan nago ni. Ez guztiak, prefosta. Horretan erori ez direnak dira nire ustez munduko izakirik baliotsuenak.

Gas aljeriarraren prezioa

JOXE BELMONTE F. DE LARRIONA Idazlea



Orain dela urte bat luze ezagutu nuen Mohamed Benhalima, eta orain dela urte bat eskas ikusteari utzi nion. Santurtzin bizi zen, eta ekainaren 20ko Errefuxiatuen Nazioarteko Eguneko manifestazioa prestatze lanetan zebilen Bilbon. Bera ere, errefuxiatua, Espainiako Estatuan nazioarteko babesa eskatuta.

Aljeriatik ihes egin behar izan zuen, Armadaren barruan –militarra zen– ikusitako ustelkeria-kasu batzuk salatzearen ondorioz, eta, handik gutxira, 2019an, bere herriko askatasun zibilen aldeko manifestazio baketsuetan parte hartu izanaren ondorioz. Bera atxilotzeko aginduaren berri izan zuen.

Horrela, babesaren bila, heldu zen Euskal Herrira. Zoriontsu zegoen gure artean, harik eta legez kanpoko deportazioaren itzalak mehatxatu zuen arte.

Hor hasi zen pelikula baten argudiorako balioko lukeen ihesaldia. Alferrik. Polizia Nazionalak Zaragozan atxilotu zuen. Hortik aurrera, epai-bermerik gabeko eta guztiz legez kanpoko prozesua, meteorikoa –hamar bat eguneko epea–, Valentziako CIE-ra, egun gutxitan asilorik eza, eta bi ordutara aireportura, hegaldi bat Aljerrera.

Gaur, bi hilabete beranduago, Aljeriako kartzela militar batean dago, heriotzara kondenatua.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Maitasunari dagokionez, aukerak soberan izan-gotitu hilabete honetan. Unea aprobeztatu, horixe baino ez duzu behar.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Baztertu ezazu zure zeurekoikeria hori, eta ikusiko duzu nola bueltatuko diren gauzak bere onera, bakarrik.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Festa-garaia ate-joka dugu, baina oraindino ez zaude horretarako prest. Duela urte biko arma-rua zabaldu eta berreskuratu arropak.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Beti aurkako iritziak botatzen, honezkero lagunak eta senideak aspertuak dituzu. Martxa honetan, zure kontrako boikota egingo dute.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Lagunakaz asmo berri horien planak aurrera ateratzeko merezi du, ongi ateratzeko aukera handiak daude-eta.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lanpetuta ibiliko zara, eta, horregatik, lan-mai-lan aurrera egingo duzu. Halere, arrakasta hori inor mindu barik lortzen saia zaitez.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Ustekabeko gertaera batek lur jota utziko zaitu, baina, hala ere, lasai egon, susto bat besterik ez da izango eta.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Inguruko eragin txarretatik urrundu, ez zaitez ergela izan; ekaizta dagoenean onena porturako bidea hartzea izaten da.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Gaizki ulertuek ondorio latzak ekar ditzakete; erne zure bikotekideagaz harremanak txarrera egin dezakeelako.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Lasaitasuna behar duzu. Emozio handi horien atzetik ibiltzek ez zaitu inora eramango. Are gehiago, ez dizu ezer onik ekarriko.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Larri zaude erositako milaka musukoakaz zer egin ez dakizulako; lasai, COVID-19a atzean utzi eta tximino-batzanga dugu orain.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Postariak ekarri beharreko kutxak nekez helduko dira, etxera txirrina jotzen dutenean atea irekitzen ez baduzu.

«Gazte euskaldunok euskaraz aritzeko eta euskara sustatzeko tentazioa izan beharko genuke, tentazioetako bat gidabaimena euskaraz egitea da».

JONE ESTEIBARLANDA

«Eroso sentitzen naiz euskaraz ikasten. Txikitatik ikasi dut euskaraz; beraz, erraza izan da niretzat gidabaimena euskaraz egitea».

OIHAN MAGUREGI

«Ikasketak euskaraz egin eta gero, gidabaimena ere euskaraz ateratzea zentzudunena iruditu zitzaidan. Gure hizkuntza sustatzeko ekimen polita da».

IRATI INTXAUSTI

Gidabaimena euskaraz

ERRAZA DA!

Getxon erroldatuta bazaude eta **17-23 urte** artekoa bazara, Getxoko Udalak **gidabaimena euskaraz** ateratzeagatik:

100 EUROKO DIRULAGUNTZA EMANGO DIZU!

Eta gainera...

100 euroko 3 erregai-txartel zozkatuko ditugu.

Hementxe dituzu benetako testak, sartu eta probatu!



info +ago

Zure autoeskolari edo
Getxoko Udaleko
Euskara Zerbitzuan.
94 466 00 10

euskara.zerbitzua@getxo.eus
www.getxo.eus/euskara



Getxo
bizi ezazu



ALKARBIDE
Bikarria Biziaren Aholkaria Biziaren

Bizkaia
foru aldiunika diputación foral



Konpartitu itzazu udako abenturak!

Ikastaroagaz argazki ederrak egiten ikasi duzuelakoan, argazki-lehiaketa antolatu dugu, zuen udako edota abenturen irudiak helarazkiguzu parte hartzeko.

Zelan parte hartu?

1. Gaia uda/abenturak izango da.
2. 2022 urtean zehar egindako argazkiak.
3. Pertsona bakoitzeko 3 argazki, gehienez.
4. Emailez bidalita, «2022 argazkia» idatzi e-postako gaian.
5. Parte hartzailearen izen-abizenak adierazi.


Argazkiak bidaltzeko epea
2022ko irailaren 30a.

Nora bidali?

foto@hiruka.eus helbidera edo www.hiruka.eus



Lehiaketan eta zozketan parte hartzeko oinarriak irakurtzeko zein zuzenean lehiaketan parte hartzeko, eskanea ezazu QR kode hau.



FOTORICARDO

PHOTO CENTER:

Euskal Herria 2, Algorta/ 944 608 004

FOTO RICARDO:

Calle Mayor, Areeta/ 944 634 813

FOTO RICARDO:

Algortako etorbidea 110, Algorta/ 944 603 248


FOTO & PAPEL:

Juan Bautista Zabala, Algorta/ 944 912 244

www.fotoricardo.es

Inprimatu dekoratu eta oparitu zure argazkiekin!

Dendan zein internetetik edozein gailu erabilita



**1go
SARIA**



60 x 40 metakrilato-argazkia

Lehiaketako irabazleak 60 x 40 zentimetroko metakrilato-argazkia lortuko du, Foto Ricardo dendaren eskumenez. Nork bere gustuko den argazkia egongelan edo etxean apaingarri gisa jarri ahal izateko aukera paregabea!

Zozketa



Fujifilm Instax Mini 11 kamera

Parte hartzaile guztien artean Foto Xabier dendak emandako Fujifilm Instax Mini 11 argazki-kamera zozkatuko dugu; argazkiak momentuan paperean eta oroitzapen gisa edukitzeko aukera izango duzue!



*Gozatu jaietan
eta irri!*

FOTOXABIER SOPELA

Doctor Landa z/g
946 760 309
www.fotoxabier.com

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA


SOLUZIOAK:



MAITATZEKO
SOLUZIOAK

Zuriko eta Xapi

Hona hemen gure bi laguntxo: ZURIKO zakurra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izenak osatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta laukoan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zeeeeer?

Bide batez, ezaba itzazu WAV, YNQ eta JUF guztiak eta zakur-katuok zer esaten ari diren ulertuko duzu.



ikastolenkartea

Biharko mundua **euskaraz** • Biharko mundu **berdinzalea** • Biharko mundu **jasangarria**

Biharko mundua gaur eta hemen

SOPELA | 946 76 02 66 | info@anderdeuna.eus | www.anderdeunaikastola.eus




**ANDER
DEVNA**
IKASTOLA



Badunk hamairu

Beno, beno, beno,
hori da abere pila!
Eta gidariak ez
al dute arriskurik
ikusten?! Nolanahi
dela ere, aurki
itzazu bi irudien
artean dauden
aldeak. Hamahiru
dira guztira.





BETIKO

IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ



www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



«Eslovakiarrok oso lotuta gaude naturagaz»

IKER RINCON MORENO ►

Eslovakiakoa sortzez, 16 urte zituela utzi zuen sorterrria Lucia Rakytovak, familiagaz Castrora (Kantabria) bizitzera joateko. Izan ere, dioenez, bere ama Iruñeko gizon bategaz ezkondu zen, Guriezon okindegi bat zuena, eta hara joan zen bizitzera. Gerora, Espainiatik ibili zen han-hemenka, eta, 2012an, Algortan finkatzea erabaki zuen, bere senarra bertakoa delako. «Asko gustatzen zait Euskal Herria, ni ere mendizalea naizelako, eta hemen topa dezaket hori, Estatuko beste hainbat lekutan ez bezala».

Gogoratzen duenez, txikitan, gurera etorritakoan, hasiera-hasieratik izan zuen euskaragaz kontaktua, «Indautxun geundela, Castrora joan aurretik, telebista piztu eta euskara entzun nuen aurrenekoz». Gainera, bere amaren senarra eta lagunak euskaraz aritzen ziren; «hala ere, oso zaila egin zait hori ikastea; oraindino horretan nabil, seme-alabakaz».

Berton oso gustura dagoen arren, bere sorterriarekiko herri-mina duela aitortzen du. Ahal

duen guztietan joaten da Eslovakiara, hango mendietaz eta balnearioetatik gozatzera –ur termal asko daude herrialdean–, eta beti-beti harritzen duen zerbait topatzen du han. Dioenez, natura oso garrantzitsua da han, herriak eta hiriak mendiz eta basoz inguratuta baitaude: «Txiki-txikitatik eskiatu dut, herrian bertan, eta oso lotuta egon gara naturagaz, betidanik».

Jan-edanari dagokionez, faltan botatzen du Eslovakiako garagardoa, «izugarria delako, hemengoa ez bezala, kar kar»; baita pastelak egiteko amapolazko hazien betegarria: «Hemen ezin da halakorik egin, hango ehogailu berezi bat behar delako hori egiteko».

Jaiak etxeetan edo zelaian egin ohi dituzte, «eta eurek jartzen diote doinua festari, musika-hezkuntza doakoa delako han. Ildo horretan, harrituta dago bertoko hezkuntza-sistemagaz, ia-ia denagatik ordaindu behar delako. «Han hezkuntza-sistema osoa da doakoa».

Bere herriari dagokionez, gogoan du gaur asko bisita daitezkeela, hala nola katedrala, gazteluak eta II. Mundu Gerran eroritako enomenez egindako parke «erraldoia». ◀



Lucia Rakytova


Nongoa
Eslovakia.

Adina
46 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Noiz heldu zinen?
2003an etorri zen aurrenekoz, baina 2012an finkatu zen.

Noiz arte hemen?
Auskalo.



Lurraldea
Eslovakia.

Azalera
49.035 km².

Hiriburua
Bratislava.

Biztanleria
5.449.270 (2021).

Hizkuntzak
Eslovakiera da hizkuntza ofiziala, baina hungarieraz ere mintzatzen da herritarren zati bat. Rusiniera ere entzun daiteke inon.

Moneta
Euroa.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Baso debekatua liburua

Ibaizabal argitaletxeari esker, 10 urtetik gorako umeentzako liburu eder hau zozkatuko dugu HIRUKAlagunen artean. Zurea izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 30a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Musika eta dantzarako gogoz?

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, uztailaren 17an, 20:00etan, izango den Xabi Aburruzaga eta Itxas Argia dantza-taldearen *Aurrez aurre* saiorako sarrerak zozkatuko ditugu.

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 30a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Bost minutuan antzerkia

Andoni Agirregomezkorta eta Itziar Urretabizkaia protagonista dituen antzerkia uztailaren 28an izango da, Muxikebarrin, 20:00etan. Horretaz gozatu gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 30a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean..



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



KALE



LE

EUSKARAZKO
KALEKO ARTEEN
JAIALDIA

Fest



**2021eko Parte-hartze izaerako aurrekontuak
ekimenetik sortutako proiektu kulturala**



+ info.:

www.getxo.eus/kalefest
kulturetxea@getxo.eus



Getxo
bizi ezazu



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu